

Gizarte bidezkoago eta berdinzaleago baten aldeko konpromisoaren harira

"EZ NAIZ IKUSEZINA. ANIZTASUNAK ABERASTU EGITEN DU" TOPAKETA ANTOLATU DU EROSKI-K

- Herritarrentzako foro ireki bat izan da, eta aniztasun sozialaren tolerantzia landu dute
- Topaketa horren oinarrian, Emakunderen Foro ibiltariko kontzientziazte ekintzak daude
- Bertan izan dira Ana Aizpiri kazetaria; Txus Martin izotz hockeyaren Espainiako selekzioko managerra; Nora Gomez Dekumas LBTko presidentea; Aingeru Mayor Naizeneko bozeramailea eta Juan Manuel Montilla "El Langui" kantaria
- EROSKI k Genero Berdintasunerako eta Aniztasunerako Behatokia du 2005etik

Donostia, 2019ko azaroaren 8a.- [EROSKI](#) "Ez naiz ikusezina. Aniztasunak aberastu egiten du" topaketa antolatu du gaur Donostiako Kursalean. Topaketa 'konplizeen' seigarren aldi honen oinarrian, Emakunderen Foro Ibiltariko kontzientziazte ekintzak daude; bertan, aniztasun sozialaren aldeko tolerantzia landu dute, eta irekita egon da bai herritarrentzat, bai elkarteentzat eta bai erakundeentzat.

EROSKIren Berdintasunerako eta Aniztasunerako Behatokiaren 'Konplizeak' programak sustatzen du topaketa. Orain ia hamabost urte sortu zen berdintasuna bultzatzeko bai erakunde barruan eta bai kanpoan. *"Desberdintasunak amaituko badira, gure kultura kooperatiboarekin eta berdintasunarekin zuzenean loturik dagoen aldaketa prozesu bat gertatu behar da. Alde horretatik, EROSKI bazterkeriarik ezaren printzipioan oinarritzen da, zeina bere sortzeko estatutuetan baitator ez bakarrik generoaren aldetik, baizik eta baita beste alderdi askotatik ere, arraza, orientazio sexuala, sinesmen erlijiosoak, iritzi politikoak, naziotasuna, jatorri soziala, desgaitasuna, identitatea eta bazterkeria eragin lezakeen beste edozein motibo"*, azaldu du EROSKIren Berdintasunerako Behatokiko arduradunak, Marta Carazok.

Ekitaldian, hor izan dira Donostiako Udaleko Berdintasun, Elkartasun eta Eskubide Zibilen arloko zinegotzi ordezkaria, Dukiñe Agirrezabalaga, eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Berdintasun arloko zuzendaria, Miren Elgarresta.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL

EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)

Ana Azpiri EITBko eta *El Correo*-ko kazetari eta herrialde arabiarretako berriemailea arduratu da topaketari hasiera emateaz. Haren hitzaldian bere ibilbideaz jardun da, nolako bizipenak izan dituen beste kultura, arraza eta erlijio batzuekin; orobat jardun da gaurko kazetaritzaz eta feminismoaz.

'Los refugios interiores' izenburuarekin, berriz, izotz hockeyko Espainiako selekzioko managerra mintzatu da, Txus Martin, eta hauxe esan du kirolaz: "*Zirkulu itxi bat da, batzuetan askotariko sentsibilitateak biltzen dituen aterpe gisa funtzionatzen duena*".

Dekumas LBT Emakume lesbianen, bisexualen, transexualen eta zisgenerokoen elkarteko presidentek, Nora Gomezek, bere bizitzaren lekukotasuna eman du, norbere buruaren eta gainerakoen inklusioa, tolerantzia, errespetua eta maitasuna aldarrikatuz. LGTB taldearen borrokarekin konprometituta dago, eta feminismoa identitate borrokatzat du. Buru belarri dihardu homofobiaren eta transfobiaren gaitza amaitzeko eginkizunean.

Jarraian, *Naizen* Euskadiko Transexual Adingabeen Elkarteko bozeramaileak hitz egin du, Aingeru Mayor sexologoak, eta esan du garrantzitsua dela adingabe transexualei lagun egitea "*zeren eta genero identitatea ez da hautatzen, ikusi eta sentitu egiten da*".

Azkenik, Juan Manuel Montilla *El Langui* kantari eta aktoreak bere proiektua aurkeztu du, "Que nada te frene". Aktore horrek irabazi asmorik ez duen elkarte soziokultural bat eratu zuen, *A mí no me digas que no se puede* izenekoak, gazteen talentua kirolaren bitartez indartzeko eta hala bizikidetzat eta laguntasuna sustatzeko. El Langui *bullyng*-aren aurka mintzo da, eta behatzaileetan jartzen du begia, giltzarrizkotzat baitu jazarpen kasuetan ahulenaren alde egin dezaketena. Mary Ward, Maria Reina eta San Patrick's eskoletako ikasle talde batekin partekatu du aktoreak bere ikuspuntu bitxia jazarpenaz eta *bullying*-az.

Berdintasunerako Behatokiaren lorpenak EROSKI n

Hamarkada bat baino gehiago darama EROSKI n etengabeko lanean *Berdintasunerako Behatokiaren bitartez*; hain zuzen ere, kooperatibako bazkide langileen %82 emakumeak dira, eta behatokiaren zeregina da erakunde osoan berdintasunaren printzipioa zaintzea. Erakunde horren bidez, beste entitate eta administrazio batzuekin lan egiten du kooperatibak. Ponentziak antolatzen ditu

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA

CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL

EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)

kanpoko ekitaldietarako, eta kanpainak egiten ditu bezeroekin dendetan; eta Emakunderekin nahiz Ongizate Ministerioarekin batera egiten du lan.

Kooperatibako langile bazkideen ordezkariak osatzen dute organismo hori, eta etengabe bere borondatez dihardu sei eremu hobetzeko lanean: hizkeraren erabilera, oztopo fisikoak eta osasunezkoak, oztopo sozialak, garapen pertsonala eta profesionala, bizitza pertsonalaren eta profesionalaren uztartzea eta errekonozimenduaren komunikazioa. Kooperatibak martxan ditu dagoeneko 58 neurri eremu horietan.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es**EROSKI – PRENTSA BULEGOA
CONSEJEROS DEL NORTE**JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)